

B-REKIÑ.



Bakarrik bizi baldiñ
 baleike bat berez
 besteren bearrikan
 bage, bakardadez,
 baliteke buruba
 berotzea birez;
 bañan bakoitzak beti
 bear badu bestez,
 benaz baldiñ bagabiltz
 bearren bearrez,
 begiratu biagu
 bi begiz, biotzez;
 burlarikan beñepeñ
 bajuai beñerez,
 bestela beldur bear,
 baletorke... baietz,
 baldiñ begiramenik
 bage banidadez
 bagabiltz bekokia
 biurturikan beltz.
 ¿Bagebiltzke beiñ beren
 besteren beldurrez,
 bear bezelakoak
 bagiña barrunbez?

PEDRO M. OTAÑO-K.

